Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión siendo las 19:50 h. del mismo día, de lo que doy fe.

Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2023ko irailaren 20ko 17:30ean, Erroibarko Udala bildu zen ohiko bilkura egiteko, lehen deialdian. Bertaratuak: Elena Jimenez Rey, Miren Nekane Nuño Iturri, Oier Zaldua Ortiz de Guzman, Teresa Bidaurreta Azcarate eta Juan Luis Fermin Gil Garcia zinegotziak, bilkura buru alkatea, Leire Remiro Esnoz, izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

Gai zerrendari ekin baino lehen ETI taldeko Gil zinegotziak, EH Bildu-Erroibar taldeko Zaldua zinegotziak eta alkateak, Remiro Esnoz andreak, bilkura grabatuko dutela jakinarazi dute.

1.- 2023ko UZTAILAREN 26ko BILKURAREN AKTAREN ONESPENA

Udalatzak erabaki du aho batez 2023ko uztailaren 26ko bilkuraren akta onartzea.

2.- 2023ko UZTAILAREN 21etik IRAILAREN 15a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Alkateak, Remiro Esnoz andreak, 2023ko uztailaren 21etik irailaren 15a arte eman dituen ebazapnen inguruko informazioa eman du.

Udalkideak jakitun dira.

Bidaurreta zinegotziak ebazen hauei buruzko informazioa eskatu du:

125. ebazen, MUGAK APURTU elkarteari egindako ekarpenari buruzkoa. Adierazi du 1.000 euroko partida gainditzen duela, eta edo gaizki dagoela edo aurrekontu-aldaketa bat egitea legokiokeela. Remiro Esnoz alkateak erantzun du egia dela aurrekontuetan onartutako kopurua gainditzen duela, baina hori begiratu zutela, eta, lotura-poltsa osoa gainditzen ez zuenez, kopurua 2.000 euroa igotzea ebatzi zuela, aurrekontua aldatu beharrik gabe.

133 Ebazen, Baigorriko Sindikatuak sustatutako obretarako lizenzia emateari buruzkoa, Kintoko Urtarai pista hobetzeko, Erroibarren. Mankomunitatearen pista publikoa denez, ez du argi EIOZ kobrau beharko litzatekeen ala ez. Idazkariak erantzun du egia dela pista publikoa dela eta EIOZ ez dela kobrau behar.

3.- ALFREDO ARGUIBIDE EQUISOAINEK MEZKIRIZKO UE-9 UNITATEAN SUSTATU DUEN MUGAKETAREN ALDAKETA XEHATUAREN HASIERAKO ONESPENA.

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza, eta esan du aktan jasotzea nahi duela sustatzailea bere senarraren lehengusua dela, eta interes-gatazkariak egon ote daitekeen galdetuta, idazkariak ezetz erantzun du, ez delako zuzeneko ahaidetasunik eta ez duelako ageriko adiskidetasunik edo etsaitasunik. Eta, nolanahi ere, idazkariak adierazi bezala, halakorik balego, haren botoak bozketaren emaitza baldintzatuko balu bakarrik ezingo luke bozketan parte hartu.

Ondoren, idazkariak hartu du hitza, eta azaldu du aldaketaren xedea Unitatearen mugak zuzentzea dela, horiek errealtitate fisikoarekin eta katastroarekin bat etor daitezen, eta Unitateko parte-hartzalea jabe bakarra izan dadin.

Partzela pribatuaren azalera 1.972,03 m²-tik 1.606 m²-ra murriztu da.

Honakoak mantenduko dira: 0,25 m²/m²-ko okupazioa, gehieneko altuera (7,5m), solairu-kopurua (BS+1+E), kudeaketa-sistema (borondatezko birpartzelazioa) eta lurzoruan sailkapena eta kalifikazioa (dentsitate txikiko bizitegi-lurzoru hiritarra).

San Kristobal kalea handitzeko lagapenari eutsi zaio, eta unitatetik kanpo utzi da 608 lurzatira sarbide esklusiboa emateko egindako bidea.

Aurreikusten da (nahiz eta ez den justifikatzen) eremutik kanpo geratzen den azalera hiri-lurzoru finkatu gisa geratzen dela.

Proposatutako aldaketak, udal-arkitektoak jakinarazi duenez, egungo egoera hobetzen du, Udalari prestazioak murritz gabe eta eragin berriak sortu gabe. Oro har, egokitzat jotzen da behin betiko onespenerako azken dokumentuan jaso beharko diren konsiderazioak kontuan hartuta. Eta unitatearen mugak aldatzeak berekin dakar lurzoruaren sailkapena aldatzea (hiri-lurzoru finkatugabetik finkatura) eta kalifikazioa aldatzea (erabilera publikoko bidetik lurzoru libre pribatura), eta, ondorioz, lurzoru-mota bakoitzari lotutako kargak eta betebeharrok aldatzea. Horregatik, 35/2002 LFBLren 49.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, zehaztapen horiek xehetasunezkoztat jotzen dira, eta jarraitu beharreko izapideztea uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 143.2 artikuluan adierazitakoa da (1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, Lurralte Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onartzen duena), lege horren beraren 74. artikuluarekin korrelazioan.

Horiek horrela, aho batez erabaki da:

1.- ALFREDO ARGUIBIDE EQUISOAINek Mezkiritzeko UE9 egikaritze-unitatearen mugak aldatzeko aurkeztutako aldaketa, indarrean dagoen Erroibarko Udal Planean mugatutakoa, hasieran onartzea, honako baldintza hauekin:

1.1. Behin betiko onespenerako, testu bategin bat egin beharko da, honako zuzenketa hauek jasoko dituena:

1.1.a Egindako bidearen erabilera eta zertarakoa argituko da: Espazio hori egikaritze-unitatearen eremutik kanpo geratzen denez, erabilera eta titulartasun pribatuko hiri-lurzoru finkatutzat jotzen da. Egoera hori argitu beharko da, eta planoetan jaso.

1.1.b 609A lurzatian integratutako bidearen ondoko zuhaitz-eremua, unitatetik kanpo geratzen bada, hiri-lurzoru finkatu libre pribatu gisa sailkatuta geratu beharko da, eraikigarritasunik gabe.

1.1.c Lursail horren forma eta antolaera kontuan hartuta (608a inguratzen duen 609 lurzatiaren hondar-espazioarekin gertatzen den bezala), kontuan hartuta berez ez dela eraikigarria, etorkizunean aldameneko lurzatiren batean eranstea gomendatzen da.

1.1.d Fitxan sartuko da unitateari ematen zaion bide-partzelaren azalera, egungo bide-partzela eta lagapenekoa bereizita.

1.1.e Dokumentua ondoren erregistratzeko, DF253/2009 arauaren arabera, plano guztiekin 4 izkinen UTM koordenatuak izango dituzte.

2.- Dokumentua jendaurrean jartzea 20 eguneko epean NAOn argitaratuta.

Jendaurreko epea amaituta eta aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren honakoa egingo da:

2.1. Zuzendutako dokumentua behin betiko onestea.

2.2. Testu bategina behar bezala izapidetuta bidaltzea Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Proiektu Estrategikoen Sailera, plangintza-erregistroan sartzeko, DF253/2009 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

4.- 2023-2024ko BASO JARDUEREN PROIEKTUAREN ONESPENA.

Remiro Esnoz zinegotzi andreak hartu du hitza. Lehenik eta behin, barkamena eskatu du, dokumentazioa gaizki prestatu delako, proiektuak ez direlako garaiz iritsi, eta akats bat egin delako: teknikariei osoko bilkuraren data esan zaie, eta ez zaie adierazi dokumentazioa berrikusi ahal izateko denbora bat lehenago egon behar zela. Idazkariak azaldu bere aldetik esan ziela saiatu behar zutela egun batzuk lehenago igortzen baina ez dela posible izan. Alkateak espero du datozen proiektyuetan zintzoagoak izatea.

Alkateak jakinarazi du proiektuak dagokion arloko batzordean landutakoa jasotzen duela, eta barne hartutako jarduketak sastrakak kentzea, Adi eta Lasturrerako errepidea egokitzea direla.

Jiménez zinegotzi andreak hartu du hitza, eta interesgarria iruditzen zaio ingeniarik bere e-postan aipatzen duen zuzenketa goraipatzea; izan ere, batzordean hitz egin zena ez da sartu, loteren bat baitago aurreikusita Lastur mendiko pistatik ateratzeko. Hala ere, pistari eragiten dion garbiketa lana sartu egin da.

Hortaz, erabaki da aho batez:

- 1.- Basartea enpresak idatzitako baso-jarduketen proiektua onartzea, 24.891,58 € gehi BEZa, 2023 eta 2024 ekitaldietako aurrekontuei lotutako gastua onartuz.
- 2.- 2023/2024 baso jardueren dirulaguntza deialdian eskaera aurkeztea.

5.- 2023/2025 TOKIKO AZPIEGITURA PLANAREN PROIEKTUAK ETA FINANTZAKETA ONARTZEA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza, eta jakinarazi du, Toki Administrazioko Departamentuak zenbait obra egiteko laguntzak ematea onartu duenez, Infantek (Eunate ingeniaritza), proiektua idatzi duen ingeniarik, bilkura hasi aurretik azaldu dituen proiektuak onartu behar direla, bai eta proiektu horiei dagozkien finantza-planak ere. Proiektuak, arestian esan bezala, berandu iritsi dira, nahiz eta azaletik jakin haien edukia, ingeniarik emandako azalpenak zalantzak argitzeko balio izan duen arren, eta obrek eragindako kontzejuen presentzia ere aberasgarria izan da, kontzeju horiek baitira obren inplikazio handiena izan dutenak.

TAPEan sartutako proiektuak eta horien inguruan udalak erabakia hartu behar duenak hauek dira:

1.- ZILBETIKO KONTZEJUKO ETXEKO INGURUAREN ZOLADURA BERRITZEKO PROIEKTUA

Proiektu horri dagokionez, idazkariak hartu du hitza, eta azaldu du Kontzejuarekin adostu zela berak aurkeztea lagunza-eskaera; izan ere, eskumena Udalarenarena bada ere, Kontzejuaren esku utzi zen lagunza lortzeko aukera gehiago izateko. Hortaz, kasu honetan, Zilbetiko Kontzejuak onartu behar du proiektua, nahiz eta haren kostua eta finantzazioa Udalak ere onartu behar dituen. Horri guztiari gehitu behar zaio, obra honi dagokionez, badela zati bat, Kontzeju Etxeari eragiten dion zoladura zatia, Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen ez duena, eta, beraz, zati hori Kontzejuaren eskumena denez, Kontzejuak berak erabaki behar du gauzatu ala ez, eta, hala badagokio, kostua bere gain hartu.

Inbertsioaren kostua hau da:

INBERTSIOA

Inbertsioaren zenbatekoa (BEZ barne) eta, hala badagokio, haren eraginak
36.475,80 €.

Ordainsaria BEZ barne 2.918,06 €.

Inbertsioaren zenbateko osoa BEZ barne 39.393,86 €.

FINANTZA-BIDEA

TAPren ekarprena (ekarpenaren portzentajea x aurreikusitako zenbateko lagungarria BEZ kanpo) 10.089,00 €.

TAP Determinazio Libreko ekarprena 6.850,46 €.

Diruzaintzaren soberakina
16.266,48 €.

Aurrekontuaren bestelako diru-sarrerak (Erroibarko Udala) 6.187,92 €.

Finantzamendua, guztira:

39.393,86 €.

Toki Administrazioko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiko Toki Azpiegituren Zerbitzuak ezarritako diruz lagun daitekeen zenbatekoa tokiko erakundeak aurreikusitako zenbatekoa baino txikiagoa bada, eta, beraz, erakunde horrek finantzatu beharreko zenbatekoa handitzen bada, gastu horren finantzaketa Diruzaintzaren Soberakinaren kargura egingo da.

Aldeko lau botoz (Nuño, Zaldua, Jiménez eta Remiro Esnoz) eta aurkako bi botoz (Gil eta Bidaurreta) proiektuari onesprena ematea eta erabaki da eta aho batez Zilbetiko Kontzeju etxeko inguruko zoladura berritzeko lanen finantzabidea onartzea.

2.- AURIZBERRIN ARREPASZULO LEZEKO INGURUAREN EDUKIERA HIDRAULIKOA HOBETZEA (ERROIBAR)

Inbertsioaren kostua:

INBERTSIOA

Inbertsioaren zenbatekoa (BEZ barne) eta, hala badagokio, haren eraginak
54.693,29 €.

Ordainsaria BEZ barne	4.375,46 €.
-----------------------	-------------

Inbertsioaren zenbateko osoa BEZ barne	59.068,75 €.
---	---------------------

FINANTZA-BIDEA

TAPren ekarprena (ekarpenaren portzentajea x aurreikusitako zenbateko lagungarria BEZ kanpo)	42.507,15(85%)€
--	-----------------

Aurrekontuaren bestelako diru-sarrerak (Erroibarko Udalaren ekarprena) 16.561,60 €

Finantzamendua, guztira:

59.068,75 €.

Toki Administrazioko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiko Toki Azpiegituren Zerbitzuak ezarritako diruz lagun daitekeen zenbatekoa tokiko erakundeak aurreikusitako zenbatekoa baino txikiagoa bada, eta, beraz, erakunde horrek finantzatu beharreko

zenbatekoa handitzen bada, gastu horren finantzaketa honako hauen kargura egingo da:
☒ Bestelako diru-sarrerak: Erroibarko Udalaren ekarprena

Aldeko lau botoz (Nuño, Zaldua, Jiménez eta Remiro Esnoz) eta aurkako bi botoz (Gil eta Bidaurreta) proiektuari onesprena ematea erabaki da eta aho batez Aurizberrin (Erroibar) Arrepazulo lezearen inguruaren edukiera hidraulikoa hobetzeko lanen finantzabidea onartzea.

3.- AURIZBERRIN, SAROIBERRI, AURIZKO ERREPIDEA ETA SANTIAGO AUZOKO KARRIKETAKO (ERROIBAR) ESPALOIEN ZOLADURA BERRITZEKO PROIEKTUA

Inbertsioaren kostua:

INBERTSIOA

Inbertsioaren zenbatekoa (BEZ barne) eta, hala badagokio, haren eraginak
24.064,75 €.

Ordainsariak BEZ barne	1.925,18 €.
------------------------	-------------

Inbertsioaren zenbateko osoa BEZ barne	25.989,93 €.
---	---------------------

FINANTZA-BIDEA

TAPren ekarprena (ekarpenaren portzentajea x aurreikusitako zenbateko lagungarria BEZ kanpo)
16.119,67 €.

Aurrekontuaren bestelako diru-sarrerak (Erroibarko Udalaren ekarprena) 9.870,25 €

Finantzamendua, guztira:

25.989,93 €.

Toki Administrazioko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiko Toki Azpiegituren Zerbitzuak ezarritako diruz lagun daitekeen zenbatekoa tokiko erakundeak aurreikusitako zenbatekoa baino txikiagoa bada, eta, beraz, erakunde horrek finantzatu beharreko zenbatekoa handitzen bada, gastu horren finantzaketa honako hauen kargura egingo da:
☒ Bestelako diru-sarrerak: Erroibarko Udalaren ekarprena

Aldeko lau botoz (Nuño, Zaldua, Jiménez eta Remiro Esnoz) eta aurkako bi botoz (Gil eta Bidaurreta) proiektuari onesprena ematea erabaki da eta aho batez Aurizberriko Saroiberri, Aurizko errepidea eta Santiago auzoko (Erroibar) karriketako espaloien zoladura berritzeko lanen finantzabidea onartzea.

4.- LINTZOAINEN ZOLA BERRITZEKO LANAK, SARERIK GABE, (DONE JAKUE BIDEA), 1. FASEA (ERROIBAR)

Proiektu honetan, idazkariak proposatu du 2022 eta 2023 urteetako determinazio askeko laguntzak obra honi eragitea. Jiménez Rey zinegotziak galdu du ea obra honetan ez ote den 2023ko erabaki askea beste zein proiektu edo jarduketatan erabil daitekeen. Idazkariak erantzun du diru hori, adibidez, basogintzako jarduketetarako edo abeltzaintzako azpiegiturera erabil daitekeela, baina, egia esan, abeltzaintzako azpiegituren proiektua azkenean ez da gauzatu, eta basogintzako jarduketena kopuru txikia da. Gainera, urtea amaitzeko hiruhileko bakarra geratzen da, eta ez da espero beste inbertsio-aurreikuspenik izatea urtea amaitu aurretik, eta horregatik iruditzen zaio interesgarria diru hori obra horretara bideratzea. Alkateak esan du, horrelako erabakiak hartzeko baldintzarik onenak ez diren arren, akordio hau irailaren 25erako aurkeztu behar dela kontuan hartuta, horri buruzko erabaki bat hartu behar dela. Idazkariak azpimarratu du, erabakia oso argi ez badago, etorkizuneko beste edozein jardueratarako erabaki librea hartzeko utz daitekeela, eta 2022ko erabaki askea soilik aplikatu, bere ustez erabaki askearen zati bat plan horietara bideratu beharko litzatekeelako. Nuño zinegotziak galdu du ea gastu-araua betetzeari eragiten dion. Idazkariak erantzun du aurten arte gastu-araua etenda dagoela, baina badirudiela datorren urtean berriro aplikatuko dela. Nolanahi ere, modu batera edo bestera, justifikatu egin behar da non bideratzen den erabaki askeko dirua, eta bestela diruzaintzako gerakina erabili beharko genuke.

Obra honetan 2022 eta 2023 urteetarako erabaki askeak bideratzearekin ados egonik, finantzaketa-plana honako hau da:

Inbertsioaren kostua:

INBERTSIOA

Inbertsioaren zenbatekoa (BEZ barne) eta, hala badagokio, haren eraginak
297.736,00 €.

Ordainsariak BEZ barne	23.818,88 €.
Inbertsioaren zenbateko osoa BEZ barne	321.554,88 €.

FINANTZA-BIDEA

TAPren ekarprena (ekarpenaren portzentajea x aurreikusitako zenbateko lagungarria BEZ kanpo) 168.696,93 €.

TAP Determinazio Libreko ekarprena	79.840,49 €.
Diruzaintzaren soberakina 73.017,46 €.	

Finantzamendua, guztira:

321.554,88 €.

Toki Administrazioko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiko Toki Azpiegituren Zerbitzuak ezarritako diruz lagun daitekeen zenbatekoa tokiko erakundeak aurreikusitako zenbatekoa baino txikiagoa bada, eta, beraz, erakunde horrek finantzatu beharreko zenbatekoa handitzen bada, gastu horren finantzaketa honako hauen kargura egingo da:
 Diruzaintzaren soberakina

Aldeko lau botorekin (Nuño, Zaldua, Jiménez Rey eta Remiro Esnoz) eta kontrako birekin (Gil eta Bidaurreta), Lintzoainen (Donejakue bidea) sarerik gabeko zoladura berritzeko 1. faseko (Erroibar) proiektua eta finantzazioa onartzea erabaki da, eta hartutako erabakia eta Tokiko Inbertsioen Plana arautzen duen martxoaren 22ko 8/2022 FORU LEGEAN eskatutako gainerako dokumentazioa Toki Administrazioaren Departamentuan aurkeztea.

Bidaurreta zinegotziak hartu du hitza, eta azaldu du bere taldeak aurka bozkatuko duela, proiektuak nolakoak diren jakin berri dutelako. Aurreko puntuau, aldeko bota eman badute, begiratu ahal izan dituztelako izan da, baina ez da gauza bera gertatu hauekin, ezin izan dituzte ikusi, eta posta bidez ere ez zaizkie iritsi. Jimenez Rey zinegotziak dio

gaia aurreko legegintzalditik datorrela eta Bidaurreta zinegotziak erantzun du, nahiz eta aurreko legegintzaldiko gaia izan, memoria zehatzua ez zaiela garaiz iritsi. Alkateak erantzun du hori zela bilkura egin aurreko bileraren helburua, bazekitelako hori horrela izan dela eta horregatik ingenaria eterri dela azalpenak ematera. Gil zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du, nahiz eta badakien ezin izan dela lehenago egin, hamabost egun lehenago planteatu izan balitz eta kontzejuekin hitz egin izan balitz, orain dena argiago egongo litzatekeela erabaki ahal izateko, eta bozketa beste bat izango zatekeela. Idazkariak hartu du hitza, eta esan du aurretik onartutako memoriak garatzen dituzten obrak direla, eta ez dela ezer aldatu haien helburutik. Aldatu dena zifrak dira, zehatzagoak baitira, baina obraren edukia ez da aldatu. Gil zinegotzi jaunak erantzun du azalpen-bileran ikusi dela zalantza batzuk daudela, eta alkateak gaineratu du zalantza horiek hasierako memoriaren idazketan bazeudela. Memoria TAPi aurkeztu zitzzion, eta horren arabera, Nafarroako Gobernuak onartu zuena, edukia ez da aldatu. Eta ezin izan da proiektua lehenago aurkeztu, ez zegoelako idatzita. Baina memoria idatzi zenean kontzejuekin egon ginen, eta jakin bazekiten zer egingo zen, memoriak 2022an aurkeztu zirelako.

Nuño zinegotzi andreak ere hartu du hitza, eta esan nahi du bere aldetik onartu zuela aurreko Udalak kontzejuekin landutako jarduerak zirela, eta orain izapide hutsa baino ez zela, eta, horregatik, arraroak egin zaizkio kontzejuek egindako galdera batzuk. Gil zinegotziak erantzun du landu zirela, baina behin onartuta berrirkusi behar zirela. Nuño zinegotziak azaldu du hori dela ingeniararekin adostu dena, hilabeteko edo bi hilabeteko epean kontzejuekin elkartu behar garela nola egingo den argitzeko. Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza, eta ez du eragozpenik jartzeko ETI taldearen botoari, hala uste badu, baina edukia eta prozesua ETIren proiektuak dira, aurreko legegintzaldian kudeatu zituenak, eta akatsik badago, haien erantzukizuna izango da. Gil zinegotzi jaunak argitu du TAP hori onartu zenean ez zekitela zer onartuko zen, zerbait eginda zegoela, baina TAPa onartu denean mugitu behar dela. Alkateak erantzun du onartutako TAP aurreko legegintzaldian atera zela eta, beraz, ETIri zegokiola Gil jaunak aipatzen dituen lanak egitea. Azkenik, Bidaurreta zinegotziak esan du aurkako botoa ematearen arrazoia hori dela, ez dutela denborarik izan proiektuak ikusteko, eta besterik ez.

6.- ERROIBARKO ESKOLAKO JANTOKIEI DIRULAGUNTZAK EMATEA ONARTZEA

Nuño zinegotzi andreak hartu du hitza eta 2. Arloko batzordean landutako hurrengo proposamena aurkeztu du. Batzorde horretan hiru udal-taldeetako kideak zeuden, eta

Erroko eta Aurizberriko Guraso Elkarteekin hitz egin zuten. Proposamena Erroibarko Udalak balarako eskoletako jantokiei ekonomikoki eusten laguntzeko aplikatuko dituen irizpideak finkatzean datza; izan ere, familia bateragarri egiteko, familien bizi-kalitatea hobetzeko eta lurraldean biztanleria finkatzen laguntzen duen elementua direla ulertzen da.

Udal honen asmoa da jantoki horiek sortutako defizita ordaintzen laguntzea eta jantoki horien familia erabiltzaileek inguruko jantokien batez besteko prezioak gainditzen dituzten jantoki-tasak ez ordaintzen laguntzea.

Proposamena ibarreko eskoletako jantokiek sortutako defizita ordaintzea da, familiek ez dezaten ordaindu 7,00 € baino gehiago menu bakoitzeko garraiatu gabeko ikasleen kasuan, eta 1,75 € baino gehiago garraiatutako ikasleen kasuan 2023-2024 ikasturtean. Inguruko jantokietako batez besteko prezioen zenbatekoa urtero berrikusiko da, udalerabaki hau berresteko edo aldatzeko.

Udalak eskola-jantokiei emango dien dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztu ahal izateko, Udalak honako informazio hau eskatuko die eskola bakoitzeko gurasoen elkarteei, abuztuko bigarren hamabostaldian:

- Bazkaltiar kopurua (garraiatutako ikasleak)
- Bazkaltiar kopurua (garraiatuak ez diren ikasleak)
- Ikasturtean jantoki zerbitzua ematen den egun kopurua.
- Ikasturteko jantoki zerbitzuaren aurrekontua.
- Jantokiko gastua ordaintzeko aurreikusitako beste diru-sarrera batzuen aurrekontuari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
 - Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko dirulaguntza
 - Garraiatuak ez diren ikasleentzako dirulaguntza (emendakinaren bidez)
 - Bestelako dirulaguntzak
 - Bestelako finantzabideak

Udalak zehaztuko du dagokion laguntza ekonomikoaren zenbatekoa, aurrekontupartidaren mugen barruan.

Zenbateko hori Guraso Elkarte bakoitzari jakinaraziko zaio, eta, era berean, hasitako ikastaroaren urtarrilean ikastaroaren % 60 jasoko dutela jakinaraziko zaio.

Laguntzaren gainerako zenbatekoa ekainean likidatuko da, gauzatutako gastu errealen egiaztagiriak aurkeztu ondoren.

Udalak eskatu dio eskola bakoitzeko guraso elkarteari ekainaren 22tik 30era honako informazioa aurkeztea:

- Ikasturte osoko jantoki zerbitzuaren fakturak
- Faktura horiek ordaindu izanaren agiriak
- Jasotako bestelako dirusarreren erantzukizunpeko aitorpena:
 - Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko dirulaguntza
 - Garraiatuak ez diren ikasleentzako dirulaguntza (emendakinaren bidez)
 - Bestelako dirulaguntzak
 - Bestelako finantzabideak

Udalak bukatutako ikasturteko jantoki zerbitzuari dagokion dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa zehaztuko du.

Zenbateko hori guraso elkarreko jantoki zerbitzuari dagokion dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoaren eta urtarrilean sartutako aurrerapenaren zenbatekoaren arteko aldea. Hori guztia uztailaren 5a baino lehen ordainduko da.

Remiro Esnoz alkateak gaineratu du, Nuño zinegotziaren azalpena osatzearen, neurri honen helburua dela udalak bere gain hartzea jantoki txikien kostuen gorabeherak, beren ezaugarriengatik. Eta, beraz, Udalak bere gain har ditzala kostuen gorabehera horiek, eta familiek ez dezatela gehiago ordaindu behar arrazoi horregatik. Dokumentua iraunkorra da, nahiz eta berak jada esaten duen aldatu egingo dela eta urtero berrikusiko dela, dauden kostuen arabera. Bidaurreta zinegotzi andreak galdeku du ea Udalak onartzen duen testua jarraitu beharreko irizpidea jakiteko den edo ordenantza bat onartu beharko litzatekeen. Erantzun da ez dela beharrezkoa, Udalaren akordio bat dela jantokiei laguntzeko eta denboran mantendu ahal izateko, eta nahikoa dela laguntha horiek aplikatu ahal izateko eta jantokiak finantzatu ahal izateko.

Bidaurreta zinegotzi andreak hartu du hitza, eta esan du bere taldea abstentu egingo dela, buelta asko eman dizkiotelako eta errazagoa iruditzen zaielako defizita muga bat jarriz ordaintzea. Zalantzak sortzen dizkie Piribiziren proiektuak aurrera jarraituko ote duen, eta hobe iruditzen zaie muga bat ezartzea, edo mahaikide bakoitzeko edo

aurrekontu-partidara arteko defizit osoari muga bat jartzea. Alkateak erantzun du onartutako irizpideetan bertan jasota dagoela eta hori dela proposatutako irizpide horien asmoa, udalak eskola-jantokiei laguntzeko moduari buruzko muga bat jartzea. Piribizik jarraituko ez balu, familien esku geratuko litzateke, Udalak ez baitu Piribizik familiei eskaintzen zien ahalmen ekonomikoa, eta hortik datozer muga horiek. Eta Piribizik jarraitzen ez badu, Udalak beste finantzabide batzuk azter zitzakeela aipatu zen, baina proposatu diren irizpide horietatik kanpo, ezin baitugu defizit infinitu bat estali, ezta Piribizik eskaintzen zuena eman ere. Akordio horren bidez, irizpide eta muga batzuk ezartzen zaizkie laguntza horiei, argi uzteko familiei Udalak noraino eman dezakeen.

Aldeko lau botoz (Nuño, Zaldua, Jiménez Rey eta Remiro Esnoz) eta bi abstentzioz (Gil eta Bidaurreta) erabaki da proposamena onartzea, hau da, ibarreko eskoletako jantokiek sortutako defizita ordaintzea, familiek ez dezaten ordaindu 7,00 € baino gehiago menu bakoitzeko garraiatu gabeko ikasleen kasuan, eta 1,75 € baino gehiago garraiatutako ikasleen kasuan 2023-2024 ikasturtean. Inguruko jantokietako batez besteko prezioen zenbatekoa urtero berrikusiko da, udal-erabaki hau berresteko edo aldatzeko.

7.- IKASKETETARAKO LAGUNTZEN TESTU BATEGINA HASIERAN ONARTZEA

Remiro Esnoz alkate andreak hartu du hitza eta esan du, gai horri dagokionez, ikasketetarako laguntzen testu bategina onartzea proposatuko dela, baina argitu du puntu horren barruan bi gai desberdin onartuko direla.

Lehenik eta behin, euskarazko ikasketei erreferentzia egiten zien eta unibertsitate-ikasketei erreferentzia egiten dien testuaren zatiari dagokionez, bi aldaketa puntual onartzea planteatuko da.

Ondoren, legegintzaldietan txertatzen joan diren aldaketa guztiak jasotzen dituen testu bat onartzea planteatuko da, gaurko osoko bilkuran planteatuko den aldaketa barne.

Aldaketa puntualei dagokienez, lehenengoa D) puntu da, unibertsitate-ikasketei buruzkoa, eta honako esaldi hau kentzea proposatzen da:

“Hau da, 3 urteko karrerak 2.976,00 euroko laguntza izanen du, 4 urtekoak 3.968,00 eurokoa, etab.” Testua gaur egungo egoerara egokitzeko, orain guztiak graduak direlako eta ez dagoelako hiru urteko karrerarik.

Eta proposatzen den bigarren aldaketa 2022ko abenduko bilkuran proposatu zen, aurreko legegintzaldian, eta E) Euskara ikasketei dagokie.

Hori dagokionez, Bidaurreta zinegotziak dio testua birpasatu duela eta euskarari dagokionez kendu behar dena hainbat ikastarori eragiten diela eta udalbatzak bakarrik

laugarrena kendu nahi duela. Berriro testua irakurri da eta alkateak azaldu du kendu nahi dena esaldi hau dela:

- *Ez da diruz lagunduko maila bereko ikastaro bat baino gehiago. Hau da, ez da laguntza ekonomikorik emanen, ez deialdi berean ez hurrengoan, diru-laguntza jaso duen ikastaro baten maila bereko beste ikastaro bat egiteagatik.*

Esaldi horren bidez, iaz hainbat pertsonari beka ukatu zitzaien ikasturte berean behin baino gehiagotan ikasteagatik. Baino helduen alfabetatze-ikasketak dira, eta bete-betean ulertu zen ez zela ikasleen profil hori zigortu behar, prestakuntza-prozesu desberdinak direlako unibertsitate-ikastaroekin alderatuta, kontua eta saria ikastaroak gainditzen joatea dela. Eta gainera udalari interesatzen zaiona da jendeak euskara ikastea eta jakitea eta gero eta gehiago erabiltzea eta horregatik dira beharrezkoak dirualguntza hauek.

Hortaz, ikusi behar dena da esaldi hori kenduz gero modalitate guztiei edo bati bakarrik eragiten dien. Diruz lagundutako modalitateak hauek dira:

- 1) *Barnetegi moduko ikastaro trinkoak, bi asteko iraupenekoak gutxienez.*
- 2) *Ikastaro trinkoak, gutxienez egunero lau ordukoak (hogei astean)*
- 3) *Ikastaro estentsiboak*
- 4) *Autoikaskuntza ikastaroak*
- 5) *Udako Unibertsitateko ikastaroak*

Horiek guztiak aztertuta, esaldi horrek ez lieke eragingo Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroei, beste lau ikaskuntza-ereduei baino ez liekete eragingo.

Horrez gain, hizkera ez-sexistara egokitua da testua, dokumentua eguneratuta edukitzeko. Jarraian, Udalak hasieratik aplikatzen duen ordenantzaren historia jasotzen duen deialdian aurkeztutako dokumentuarekin bat etorriz, NAOn argitaratutako aldaketekin eta osoko bilkura honetan proposatutako aldaketekin, horiek guztiak jasotzen dituen ordenantzaren testu bategina onartzea proposatzen da, eta, hizkuntzaren zuzenketarekin batera, Erroibarko udalerri osoan aplikatu beharreko indarreko testu bakarra NAOn argitaratzea.

Aho batez erabaki da proposatutako aldaketak onartzea eta testu bategina hasieran onartzea, 2002tik onartutako aldaketa guziekin eta hizkuntza eguneratuta. Alegaziorik ez bada, behin betiko onetsiko da, Osoko Bilkuratik pasatu beharrik gabe, eta osorik argitaratuko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

8.- AURREKONTUKO ALDAKETAREN ONESPENA

Alkateak hartu du hitza, eta jakinarazi du, aurreko bilkuran esandakoarekin bat etorriz, beharrezko dela hurrengo aurrekontu-aldaleta onartzea, Nafarroako Gobernuak diruz

lagundutako Urrobi poligonoan egin beharreko egokitzapen-obrak finantzatzeko, baina Udalak, 2023ko aurrekontuan, ez zuela horretarako partidarik onartuta. Nafarroako Gobernuak diruz lagunduko ez duen zatia Urrobi Partzuelgoak jarriko du. Aezkoako ordezkariek horren berri daukate, nahiz eta haietan bilera egitea aurreikusita dagoen. Honako aurrekontuko aldaketa onartzea erabaki da aho batez:

2023KO AURREKONTU OROKOR BAKARREKO APARTEKO KREDITUAK GAITZEKO ESPEDIENTEA. HASIERAKO ONESPENA

AURREKONTUKO ALDAKETAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 1533 6920000	URROBI IND. ZOLADURA BERRITZEA	41.930,19

<i>ALDAKETAK OSOTARA</i>	41.930,19
--------------------------	-----------

FINANTZAZIO ITURRIAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 7508016	URROBI IND. ZOLAD. DIRULAGUNTZA	20.965,09
1 7670000	URROBI PARTZUERGOAREN EKARPENA ZOLADURARAKO	20.965,10

<i>FINANTZAZIO ITURRIAK GUZTIRA</i>	41.930,19
-------------------------------------	-----------

Hori guztia Nafarroako Toki Ogasuneko 2/1995 Foru Legearen 212. eta ondoko artikuluetan ezarritakoaren arabera egingo da.

Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 276 artikuluarekin bat, txostenak jendaurrean egonen dira 15 egun baliodeuneko epean udaletxeko idazkaritzan, nahi duen orok aztertu eta bidezko erreklamazioak egin ditzan.

Erreklamaziorik aurkeztu ezean txostena behin betiko onetsitzat emango da baita haren laburpena iragartzeko izapidea betetzat ere.

9.- BESTERIK

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza, eta aurreko bilkuran bezala, sortutako lan-arloen arabera, honako hau jakinarazi du:

1 Arloa (Gizarte ongizatea, osasuna eta berdintasuna) Jimenez Rey zinegotziak informazioa eman du

Berdintasun teknikaria

Jakinarazi da Berdintasun Teknikaria kontratatzeko hautapen probetan hamalau pertsonak eman zuten izena, horietatik zazpi aurkeztu dira eta seik proba teorikoa gainditu dute. Proba praktikoa zuzendu behar da eta merituak baloratu behar dira azkeneko emaitza jakiteko. Aurreikusita dago hilabetearen bukaerarako ebaeztea eta urrian kontratua egin ahal izatea.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

NABIren dirulaguntza deialdia

Uztailaren 27an, arloko batzordea bildu zen, lagunza-deialdian zer eskatu ikusteko, eta erabaki zen landa-eremuko emakumeen eguna antolatzea (urreko legegintzaldian ere jarri zen abian), prestakuntza bat Ruth Iturbiderekin, sensibilizazioa Alvaro Embidekin, eta genero-indarkeriaren aukako protokoloa eguneratzea. Hori guztia aurkeztu da dirulaguntza ematen duen ebazenaren zain gaude.

Jakinarazi da urriaren 15ean, landa inguruko emakumeen egunean, Udalak parte hartuko duela Ministeritzak antolatu duen zine zikloan. Proiektatuko den filma AINARAK da, eta mahai-inguru batekin lagunduko da. Mahai-inguru horretan, filmaren zuzendaria eta film-dokumentalaren protagonista den Anne Etchegoien aktore eta abeslaria izango dira, urriaren 21ean Auritzen, eta abeslariak kontzertu txiki bat eskainiko du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Gazteriaren prozesu parte-hartzalea

Zaldua zinegotziak jakinarazi du gazteek parte hartu duten hainbat tailer antolatu direla arrakasta handiarekin. Unai Irigarayk, proiektua dinamizatzen duen teknikariak, oso balorazio onak eman ditu eta orain bi saio geratzen dira prozesua amaitzeko. Bilera bat egingo da, eta alderdi guztiek parte hartuko dute (data zehazteke dago oraindik). Ondoren, Udalaren eta Artelan proiektuaren ardura duen enpresaren arteko barne-balorazioko bilera bat egingo da.

Udalbatza jakitun da.

2. Arloa (Kultura, kirola eta euskera) Nuño zinegotziak informazioa eman du

Orreaga-Zubiri maratoi erdia

Kolaborazioa eskatu da eta mila euroko dirulaguntza emango da. On aldizkariko erreportaia azororako utzi da eta bihar bera eta Bidaurreta zinegotziak prentsaurreko batera joango dira Moreara 13:00etan.

Udalbatza jakitun da.

Erremonteko finala

Aurrekoetan bezala, Udalerri gonbidatu zaio Nafarroako Erremonte finalean parte hartzen, Zubirin urriaren 28an 18:00etan. Proposatu da 200 sarrera banatzea, hartara

kontzejuetan utziko dira interesdunek bildu ditzaten, Udalaren armarria emango dute eta 10 euro ordaindu beharrean 5 euro ordainduko dira. Udalak 1000 euroko ekarpena egingo du. Azkenik proposatu zaigu Udalak patronatuan parte hartze, baina informazioa igorriko dute eta baloratuko da.

Derrigorrezko irakaskuntzaren ondoko garraioa

Joan den urtean Proiektu Estrategikoetako Zerbitzuaren dirulaguntza jaso zen derrigorrezko irakaskuntzaren ondoko garraioarentzako. Udala garraio horren kudeaketaz eta taxilarien adjudikazioen izapidezearrarduratu zen, eta, ondoren, dirulaguntza jaso zuen. Aurten ez genekien zer gertatuko zen gaiarekin eta nahiz eta Proiektu Estrategikoetako Zerbitzutik mantenduko dela esan, oraindik ez dakizu ezer. Hori dela eta, familiek berriz ere lagunza eskatu zieten erakundeei, babesia eman ziezaieten, eta bilera bat egin zen Auritz, Garralda eta Erroibarko udalekin, eta adostu zen udalek laguntzak abendura arte luzatzea. Konpromisoa ezin zen handiagoa izan, erakunde batzuek zerbitzuaren kostuari aurre egiteko funtsik ez dutelako eta, gainera, Aurizko eta Garraldako udalak jardunean daudelako, baina zerbitzua berehala hasten zenez, erabakia hartu behar zen eta iazko ikasturteko kontratua urte amaierara arte luzatzeko konpromisoa hartu zen. Bitartean lanean jarraituko dugu eta politikoki esku hartuko da Nafarroako Gobernuko dirulaguntzak jasotzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Kirolarentzako dirulaguntzak

Kirol-laguntzen deialdiari dagokionez, bando bat argitaratu da, eta irailean zehar epe bat ireki da ordenantzen araberako lagunza-eskabideak aurkezteko. Batzordea urriaren hasierarako deitua dago aurkeztutako eskaerak baloratzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Euskara.

Zaldua zinegotziak jakinarazi du Euskarabidearen bitarte, euskararen nazioarteko egunaren karietara, hainbat ekitaldi antolatuko direla eta horietako bat azaroaren 30ean egingo dela Erroko eskolan, lehen hezkuntzako ikasleei zuzendua.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3 Arloa (enplegua, industria, energia eraginkortasuna, turismoa, landa garapena) Jimenez Rey zinegotziak eman du informazioa

Turismo-jasangarritasuneko plana helmugan

Jakinari da gai horri buruz eztabaidatzeko bilera abuztuaren 2an izan zela, eta planteatu zena plan horretan sartzeko jarduketak egitea izan zela. Hiru proiektu sortu ziren, planak, ideiak: bata bidezidorren sareari buruzkoa, bestea, ibarrerako sutearen aurkakoa, eta azkena, ondarearen ibilbideei buruzkoa. Ondoren, kontzejuekin beste bilera bat egin zen, proiektuak aurkezteko luzapena eman zelako, eta Lintzoain eta Aurizberri bertaratu ziren. Aurizberriko kontzejuak bazuen proiektu bat bere kabuz

lantzko, eta Lintzoainek Udalak egindako proposamenetan lagundu zuen. Behin proiektuen fitxak landuta eta aurkeztuta, suteen aurkako planaren proiekтурako aurrekontua dagoela dirudi, baina Basarteak prestatuko duen memoria baloratua aurkeztu behar da. Gainerako proiektuak baliteke onartzea, baina oraindik dena airean dago.

Cedernak jakinarazi zuen Pirinio mailako proiektuetan lagunza eskatuko zigitela, edo udalak parte hartzea nahi bazuen, adibidez, "hilarrien" gaiarekin erakundeetara joko dute, edo norbaiti lagundu eta ekarpenak egin nahi badizkio, Pirinioko web bat sortuko dutelako. Nolanahi ere, hori guztia ibarrekoa ez den eremuan egingo da. Ibarri dagokionez Arpeako emakumearen eta Loizuko gizonaren aferari buruzko panelen gaia atera zen, eta Pirinio mailako zerbait egin behar dela aipatu zen, baina hori guztia gainetik eta gehiegiz zehaztu gabe. Hori guztiak lantzen ari da eta Pirinioko programa batean sartuta.

Uztailean, Cedernak informazio-bilera bat deitu zuen Zubirin, Cederna bera nola antolatu eta kudeatzen den azaltzeko. Gaur, 17:00etan, Cedernako Batzar Nagusia izango da, eta bertan aukeratuko da, besteak beste, gure azpieskualdeko ordezkarria eta Esteribarko Udaleko zinegotzi bat aurkeztu da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Arlo honetan aurrekoan aipatutako Urrobi partzuergoaren afera sartua dago.

Natura Sarea, eremua Sorogaingo

Zaldua zinegotziak jakinarazi du Lursareko teknikari batekin egon zela tokia ikusteko, Sorogaingo inguruneaz kezkatzen zuena eta zer egin ahal den ikusteko, eta irailaren 28an, ostegunean, goizeko 9:00etan bilera bat izango dute lan-proposamen bat eramateko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

4 Arloa (mendiak, abeltzaintza, bazkalekuak, ingurumena, ondarea, hondakinak)

Ehiza barrutia:

Remiro Esnoz alkateak ehiza-barrutiari buruz izandako bileraren berri eman du. Bertan, eratzunak banatzeaz gain, herri-lurretako koadrilen ehiza-datak banatu ziren, eta ehiza-barrutiaren beraren gaiei buruz eztabaidatu zen. Jaurerrien lurak ehiza-barrutian sartzeko eskatzeari edo ez eskatzeari buruzko eztabaida bat dago, Nafarroako Gobernua interesatuta dagoela baitirudi; hala ere, barrutiaren barruan iritzi desberdinak daude, eta informazio gehiago biltzea eta horri buruz hitz egiteko beste bilera bat egitea erabaki da. Hala ere, barrutia laster berrituko da, hortaz, edozein erabaki barrutia berritzen denean sartuko da, gutxi gora behera hemendik bi urtera.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Kinto Mankomunitateko karquen izendapena

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du mankomunitatea osatu dela eta lehenengo bilera egin zela eta haren akta udalkide guztiei banatuko zaiela. Zuraungo eremuko enkantea egin behar da, hutsik gelditu baitzen, eta laster aterako da %20 beherapenarekin. Hortaz gain ehiza postuak berrikusi behar dira eta bai postuetan zein etxoletan egin behar diren lanak martxan daude.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

NPB inzidentzia

Zaldua zinegotzi jaunak NPBrekin gertatutako gorabehera baten berri eman du. Bertan, bi espediente gainjarri ziren, bi partikularrek eta Udalak aldi berean deklaratu zituzten jaurerrien bi finkaren 5,56 ha. 5 ha. Udalak erreserba zuelako konpondu ziren, eta gainerakoa, 0,56 ha arte, eragindako bi berezietako batek kendu zituen bere espedientetik.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Oihan aprobetxamendua

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du Laurentxiko oihan aprobetxamendua Arpanari adjudikatu zaiola 44,57 €/m³tan.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

5 Arloa (hirigintza, azpiegiturak, etxebizitza)

Ur-intzidentziak

Jakinarazi da Ardaizko uraren analisiak ongi atera direla eta zuzendua dagoela. Udalak uraren kutsaduraren kasuetan aplikatzen den protokoloa aurrera eraman zuen: uraren kontsumoa moztea, higienizazioa eta abar., baina alkateak adierazi du, bere ikuspegi subjektibotik, laginak hartzetik azken emaitzetara denbora gehiegi igaro dela, eta biztanleei oso luze egin zaiela.

Ardaitzen arazoa dago kloroarekin eta mantentze enpresarekin, Tabar, bilera egingo da Eguberriak baino lehen ibarrean ematen duten zerbitzuaz eta Ardaitzen emana ahal diren irtenbideez hitz egiteko.

Jakinarazi da Mezkirizko zehapen-espedientea isunik gabe itxi dela, deuseztu baita. Eta Odiari dagokionez, behin betiko datuak falta dira.

Udalbatza jakitun da.

Hirigintza plana

Jakinarazi da espedientea Lurraldearen Batzordeari igorri gabe dagoela, hark oniritzia eman dezan, baina ez dakigu Batzorde hori noiz deituko duten.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Disuasio-seinaleak

Bizkarretako kontzejuak disuasio-seinaleak jartzeko aukerari buruz eskatuta, horiek non jarri aztertzeko eskatu zaio udal-arkitektoari; izan ere, hiri-lurzoruaren barruan jarri behar dira eta ez diote ikusgarritasunari eragin behar.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

6 Arloa (ekonomia, kontuak, aurrekontuak, ogasuna, zergak)

2022ko kontuen espedientea

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du 2022ko kontuen espedientea onetsi gabe dagoela eta urriko bilkuran aurkeztuko dela.

7 Arloa (kontzejuak, herriak, pirinioa, toki administrazioa)

Ordutegi aldaketa

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du urritik aurrera ordutegia aldatuko dela langileak partekatzen dituzten udalen artean, gobernu-taldeak duen lan-ordutegia hobeto koordinatu ahal izateko. Aldaketa hori gobernu-taldearen beste ideia batekin lotuta dago, hau da, herritarrekin ordutegi bat ezartzea, eta, era berean, urriaren hasierara arte ezin izango da gauzatu. Urriaren 1etik aurrera, bando bat egingo da herritar guztiei jendaurreko ordutegiaren agendaren berri emateko, ostegunetan 9:30etik 10:00etara eta 13:00etatik 13:30era. Aldez aurretik hitzordua eskatu beharko da, telefono bidez edo posta elektronikoz, gaia zein den adierazteko. Arreta-hitzordu laburra izango dira, eta helburua da kontaktua izatea eta kezkak jasotzea, gero horiek tratatzeko.

Orain arte, bailarako pertsonen eskaerak eta komunikazioak jaso dira, baina oraindik ez dira erantzun, lehenetsiz joan direlako, lehenagotik zegoenaren eta aurkeztu diren dataren arabera. Lehen hilabeteak oso intentsoak izan dira, lan egiteko eta egunean jartzeko, eta ezin izan da nahi bezain azkar erantzun.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Pirinioko Mahai

Pirinioetako Mahaiarekin irailaren 14an izandako bileraren berri eman da. Bilera horretan, bi ekintza-bide jasotzen dituen erabaki nagusi bat hartu da. Hauteskundeen ondoren, Nafarroako Gobernua osatzen ari da oraindik, eta ez dago informazio handirik Pirinioetako Planarekin zer gertatuko den, horrek zer ekarriko duen eta bere inguruan garatu diren proiektuak eta plan horrekin nola jarraitu behar den jakiteko. Plan hori Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak eta Pirinioetako Mahaiak parte hartzen duten egitura asanbleario batean oinarritzen da. Plan beraren atzean lan taldea dago. Gobernu erabakian ez zen ezer aipatzen gaiaz arduratuko den Departamentuaz, eta oraindik ez dakigu ezer horri buruz. Horregatik, bileran erabaki zen, kortesiazko denbora igaro ondoren, premiazko bi bilera eskatuko zirela, bata Parlamentuarekin eta bestea Nafarroako Gobernuarekin, eta, aldi berean, ekitaldi publiko bat egingo dela herritar guztiei, kolektiboei, elkarteei eta toki entitateei dei egiteko, datorren urriaren 17an, 18:30ean, Jaurrieta, eta helburua da, bilerak egin badira, planaren etorkizunaren berri ematea.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa

Jakinarazi da Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federaziotik Iruña Park hotelean urriaren 6an 17:00etan egingo den Batzar Orokorrerako deia jaso dela eta Nuño zinegotzia joango dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

8 Arloa (bestak, ekitaldiak, Erroibarko eguna)

Urepeleko belaunaldien arteko parkea

Jakinarazi da Urepeleko Udalak belaunaldien arteko parkearen inaugurazio ekitaldira gonbidatu zuen Udala abuztuan eta ordezkariak joan zirela.

11.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez daude.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 19:50ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.